



Gaia: prozedura bertan behera uzteko akordioa.

Espedientea: ekipamendu zientifikoa eskuratzeko 2018ko ekitaldiko laguntzen deialdia (2017ko urriaren 24ko agindua, 2017/11/2ko 209. zk.ko EHAA).

Hezkuntza Saila

Hezkuntza sailburuaren 2017ko urriaren 24ko agindua (2017/11/02ko 209. EHAA), ekipamendu zientifikoa eskuratzeko 2018ko ekitaldiko laguntzak emateko diru-laguntzak deitzen dituen, dela-eta Sail honetan tramitatzen ari den administrazio-prozeduran ebaluazio-txosten bat gehitu behar zaio; izan ere, txosten horrek arloari buruzko iritzia eman behar du eta prozedurari gehitu behar zaio derrigorrean, eman beharreko ebazpenaren edukiari buruz irizpidea zehazteko, mota horretako administrazio-prozedurei aplikatzen zaien araudiak xedatutakoaren arabera.

Horregatik, hau jakinarazten dugu: 2018/01/09an eskatu zaio Ekonomia eta Lehiakortasunako Ministeritzako (MINECOko) Koordinazio eta Ebaluazio Subdibisioari aipatutako txostena, eman eta bidal dezan, administrazio-espedienteari gehitzeko asmoz.

Administrazio publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeak 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, hiru hilabetetik gorakoa ezin izango den epe batean, eskaera egiten denetik derrigorrezko txosten arrazoitua jaso arte, bertan behera utzi ahal izango da prozedura bat ebatzi eta ebazpena jakinarazteko legezko gehienezko denbora.

Horren arabera,

EBAZTEN DUT

Bertan behera uztea Hezkuntza sailburuaren 2017ko urriaren 24ko aginduaren (2017/11/02ko 209. EHAA), ekipamendu zientifikoa eskuratzeko 2018ko ekitaldiko laguntzak emateko diru-laguntzak deitzen dituen, espedientea dela-eta Sail hau aurrera eramaten ari den administrazio-prozeduraren tramitazioa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak eman beharko duen ebazpenaren edukia zehazteko funtsezkoa izango den derrigorrezko txostena jaso eta espedientera gehitu arte. Txosten hori jasotzea dela-eta, emango zaio interesatuari unean-uneko informazioa.

Halaber, hau jakinarazten dugu: tramitazioa bertan behera uzteko epea ezin izango da inoiz ere hiru hilabetetik gorakoa izan, Administrazio publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeak 22. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ebazpen hau prozeduran interesatuta dauden guztiei jakinaraziko zaie, Administrazio publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeak 40 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarilaren 9a



Amaia ESQUISABEL ALEGRÍA
Ikerketako Zuzendaria .



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
Ikerketa Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Dirección de Investigación